



RESPUESTA POR ESCRITO A LA PREGUNTA FORMULADA POR D^a. MARIAN BEITIA-LARRANGOITIA LIZARRALDE, PARLAMENTARIA DEL GRUPO EH BILDU, AL CONSEJERO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES, RELATIVA A ALOKABIDE.

(10/10/05/03/4746-29261)

1.- ¿Qué significa “ya ha impulsado la mayoría de las propuestas del Parlamento recogidas en la mencionada PNL”?

El Departamento de Empleo y Políticas Sociales ha dado cuenta sobre el cumplimiento de esta PNL en numerosas ocasiones a través de respuestas a preguntas parlamentarias, así como en la comparecencia del Consejero en diciembre de 2014 ante la Comisión de Empleo, Políticas Sociales y Vivienda.

En todas estas ocasiones se ha informado sobre el cumplimiento de la PNL y sobre la postura mantenida por este Departamento. Nuevamente, y en la respuesta a la segunda pregunta, expondremos cuál es la situación de las propuestas recogidas en la referida PNL.

2.- En relación con los puntos aprobados en dicha proposición, ¿podría aclararnos en cada punto cuándo y en qué términos se ha impulsado el cumplimiento del acuerdo?

En primer lugar, antes de la aprobación de la Proposición No de Ley del Departamento de Empleo y Políticas Sociales ya había puesto en marcha las propuestas 2, 3, y 5.

En cuanto a la primera propuesta, se considera que actualmente el alquiler libre está en ascenso tal y como demuestra el Informe de Oferta Inmobiliaria, y además, existen otras medidas más eficaces, como las que exponen a continuación, para ajustar las rentas que la modificación a medio plazo de la Orden de 3 de noviembre de 2010.

En cuanto a la segunda propuesta, se está realizando por ALOKABIDE un informe técnico para valorar el impacto económico de incluir en el límite del 30% de los ingresos ponderados los gastos de comunidad fijos y las tasas, tanto del parque de viviendas de Alokabide como del parque de viviendas de la CAPV que conforman el parque público de viviendas en alquiler del Gobierno vasco. Una vez sea obtenidos todos esos datos se adoptará la decisión pertinente, con el objetivo de unificar los criterios de acceso a las viviendas públicas en alquiler.

En relación a la tercera propuesta, como sabrán la renta de una vivienda de protección oficial no puede superar el máximo previsto en la Orden de 3 de noviembre de 2010, pero puede ser inferior y esa decisión corresponde a su propietario.

En este caso, la decisión de las propietarias se plasmó en la Instrucción de la Viceconsejera de Vivienda 2/2013, de 12 de diciembre, y en el Acuerdo del Consejo de Administración de ALOKABIDE de 31 de marzo de 2014. A través de esta medida, a la hora de calcular la renta no se tienen en cuenta los ingresos del ejercicio fiscal cerrado, sino que se establece en base a los ingresos actuales que acrediten las personas arrendatarias.

Además, se emitió la Instrucción 1/2014, de 24 de enero de 2014, de la Viceconsejera de Vivienda sobre rentas de alquiler en el parque de vivienda del Departamento de Empleo y Políticas Sociales. Mediante la aplicación de esta Instrucción ninguna renta inicial de las viviendas del parque público de viviendas sobrepasa en estos momentos el 30% de los ingresos anuales de la unidad convivencial.



Esta medida se viene aplicando con carácter universal y de oficio por parte de la Viceconsejería de Vivienda desde enero del 2014 en aquellos supuestos en los que al ir a firmar un nuevo contrato se constata que la renta calculada conforme a la Orden de Precios de 2010 sobrepasa el 30% de los ingresos ponderados.

El objeto tanto de la Instrucción de la Viceconsejería, como del Acuerdo de ALOKABIDE, era posibilitar que las personas arrendatarias de las viviendas propiedad del Gobierno Vasco y de ALOKABIDE pudieran acceder a una revisión de su renta tras sufrir una disminución de ingresos, para facilitar su permanencia en sus hogares y para que el pago de la renta no supusiera una carga excesiva que les imposibilitara hacer frente a otros gastos.

En cuanto a la cuarta propuesta, consideramos que no es compatible ser inquilino de una vivienda del parque público y ser beneficiario de una ayuda para abonar esa renta que está muy por debajo del mercado ordinario.

En cuanto a la quinta propuesta, ya se adoptó en marzo de 2014 el acuerdo por parte del Consejo de Administración de ALOKABIDE para abonar el IBI, con un coste anual estimado de 487.779 euros.

Y finalmente, en cuanto a la sexta propuesta, se ha demostrado que no es eficaz desde un punto de la gestión pública posibilitar que los inquilinos de más de 400 comunidades participen de manera directa en la gestión de los gastos de comunidad.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 2015



Angel Toña Guenaga

CONSEJERO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES



EH BILDUKO PARLAMENTARI MARIAN BEITIALARRANGOITIA LIZARRALDE ANDREAK ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARI ALOKABIDERI BURUZ EGINDAKO GALDEREN ERANTZUN IDATZIA.

(10/10/05/03/4746-29261)

1.- Zer esan nahi du "dagoeneko abiarazi ditu Legebiltzarrak legez besteko proposamen horretan jasotako proposamen gehienak"?

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak askotan azaldu izan du zein izan den legez besteko proposamen horren betetzea, bai galdera parlamentarioei emandako erantzunen bitartez, bai eta 2014ko abenduan Enplegu, Gizarte Politika eta Etxebizitza Batzordean sailburuak egindako agerraldian ere.

Erantzun horietan guztietan informazioa eman dugu legez besteko proposamenaren betetzeaz eta Sailak horretan duen jokamoldeaz. Berriz ere azalduko dugu –bigarren galderaren erantzunean– zein den proposamen horretan jasotako proposamenen egoera.

2.- Proposamen horretan onartutako puntuak hartuta, puntu bakoitzean noiz eta zein terminotan abiarazi den erabakia betetzea argitu zeniezaguke?

Lehenik eta behin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren legez besteko proposamena onartu aurretik, jadanik abian zeuden 2, 3 eta 5 proposamenak.

Lehenengo proposamena dela eta, uste dugu alokairu librea gaur egun gorantz doala, Higiezinaren Eskaintzari buruzko Txostenak erakusten duen moduan. Gainera, errentak doitzeko, badaude 2010eko azaroaren 3ko Agindua epe ertainean aldatzea baino neurri eraginkorragoak batzuk, jarraian azaltzen direnak, esate baterako.

Bigarren proposamena dela eta, ALOKABIDE txosten tekniko bat lantzen ari da, ikusteko zer nolako eragin ekonomikoa duen komunitate-gastu finakoak eta tasak sartzeak diru-sarrera haztatuen % 30eko mugaren barruan, bai Alokabideren etxebizitza-parkean bai EAeko etxebizitza-parkean, bi multzo horiek osatzen baitute Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzaren parke publikoa. Behin datu guztiak bildu ostean, erabakirik egokiena hartuko dugu, alokairuan dauden etxebizitza publikoetara jo ahal izateko irizpideak bateratzeko asmoz.

Hirugarren proposamena dela eta, jakingo duzue, babes ofizialeko etxebizitza baten errentak ezin du gainditu 2010eko azaroaren 3ko Aginduak markatzen duen gehienezko muga, baina txikiagoa izan daiteke, eta hori jabearen esku dago.

Kasu honetan, jabeen erabakia Etxebizitzako sailburuordearen abenduaren 12ko 2/2013 Jarraibidean eta Alokabideren Administrazio Kontseiluaren 2014ko martxoaren 31ko Erabakian jaso zen. Neurri horren bitartez, errenta kalkulatzeko unean ez dira kontuan hartzen ekitaldi fiskal itxiaren diru-sarrerak; aitzitik, errentariak egiaztatzen dituzten gaur egungo diru-sarrerak hartzen dira oinarritzat.

Gainera, Etxebizitzako sailburuordearen 2014ko urtarrilaren 24ko 1/2014 Jarraibidea eman zen, Enplegu eta Gizarte Politiken Sailaren etxebizitza-parkeko alokairu-errentei buruzkoa. Jarraibide horren aplikazioaren ondorioz, une honetan etxebizitza-parke publikoan ez dago hasierako errentarik, bizikidetzaren unitatearen urteko diru-sarreraren % 30 gainditzen duenik.



Neurri hori kasu guztietan aplikatu izan da, 2014ko urtarrilaz geroztik, Etxebizitza Sailburuordetzaren kabuz, baldin eta kontratu berri bat sinatzerakoan ikusten bada 2010eko Prezioen Aginduaren arabera kalkulaturako errentak gainditzen duela diru-sarreraren % 30.

Sailburuordetzaren Jarraibidearen helburua eta Alokabideren Erabakiarena zera zen: Eusko Jaurlaritzaren eta Alokabideren jabetzako etxebizitzaren errentariak aukera izatea haien errenta berriak dadin diru-sarrerak gutxitzen zaizkienean, horrela beren etxeetan jarraitu ahal izateko eta errentaren ordainketa ez izateko beste gastuei aurre egiteko eragozpena.

Laugarren proposamena dela eta, uste dugu bateraezinak direla parke publikoko etxebizitza baten jabea izatea eta ohiko merkatuaren oso azpitik dagoen errenta hori ordaintzeko diru-laguntza baten onuradun izatea.

Bosgarren proposamena dela eta, Alokabideren Administrazio Kontseiluak 2014ko martxoan erabaki zuen OHZa ordaintzea, eta horren balioespena 487.779 euro izan zen.

Azkenik, seigarren proposamena dela eta, ikusi da ezen, kudeaketa publikoaren ikuspegitik, ez dela eraginkorra 400 komunitate baino gehiagoko maizterrei aukera ematea komunitate-gastuen kudeaketan zuzenean parte hartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 13a.



Angel Toña Guenaga
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA